

Arkitektura, generoa eta heziketa

Laburpena: Genero-perspektiba kontuan hartuz, hots, justizia sozialaren onurarako lan eginez, hezkuntza-espazioetan indarrean dagoen gizonz-etakumezko dikotomia eta izaera heteronormatiboari aurre egiteko arkitektura-espazio berriak beharrezkoak dira.

Abstract: Bearing in mind the gender perspective, in other words, working for social justice, and through new architectural spaces, it is intended to break the male-female dichotomy and the heteronormative identity in educational spaces.



Irantzu Ibañez Espinosa

Arkitektoa eta Partaidetza eta Garapen Komunitarioa unibertsitate-masterrean ikaslea.

Gako-hitzak: arkitektura, generoa, heziketa, dikotomia.

Keywords: architecture, genre, education, dicotomy.

Bidaltze data: 2016/05/07

Onartze data: 2016/05/14



Arkitektura espazio ezberdinak antolatzen dituen diziplina konplexua da; izan ere, eraikuntza-teknikak, funtzionaltasuna, diseinua, jasangarritasuna, erabiltzaileen erosotasuna eta haien arteko erlazioak uztartu behar ditu.

Azken hamarkadetan, diziplinaren oinarria eta konplexutasuna alde batera utzi dira, globalizazioak eta faktore ekonomikoek hala baldintzatuta. Arkitekturak duen izaera eraldatzailearen bokazioa galduz joan da, egun gidari den kapitalismo espekulatzailearen efektu negatiboa eta ukiezinak diren mekanismoak nabaritasun objektiboen moduan naturalizatu eta bereganatu dituen heinean (Montaner eta Muxí, 2014).

Alvar Aaltok zioen moduan, gizatiarragoa den arkitektura behar dugu, funtzionaltasunaren kontzeptu teknikoak gaintu beharra dago, alegia. Gizartean aldarrikatutako gaiak erantzuna emateko ezaguera transbertsalaren beharra daukagu. Azken mendeetan ezkutaturik izan diren gizartegaiak landu behar dira. Artea, teknika eta funtzionaltasuna, eragile politiko izatearen bokazioa eta inguruarekiko errespetua uztartu beharko ditugu. Hau da, arkitekturaren konplexutasuna berreskuratu beharra dago.

Hurrengo lerroetan, espazio eraikiaren garrantziaz arituko gara, indarrean dauden gizonzkoen espazio hegemonikoak abiapuntua izanik. Eraikitakoa heziz, eta, batez ere, txikien heziketa-espazioei buruzko gogoeta eginez, genero-ikuspuntua aplikatuz, gizarte justuago baten bidean ibiliko garelako.

Espazioen neutraltasun eza

Bizigarri ditugun espazioek zentzu kulturala dute, ezagupenaren produkzioak ere bide horri jarraitzen diolarik. Beraz, espazioak ez dira neutroak. Botere-egitura androzentrikoen arabera diseinua mugatu, hierarkizatu eta baloratu egiten da, eta gizonzkoen identitate kulturaletik abiatuz, ondoriozko dominazio-sistemek indarrean jarraitzen dute. Gogora dezagun honenbestez, generoa eraikuntza sozial eta kulturala dela.

Hiri eta arkitektura liberalaren sorrerak esfera pribatu eta publikoaren arteko bereizketan du oinarrietako bat (Arendt, 2007). Ideia hori Carol Gilliganen zaintzaren etikaren teoriarekin uztartuz, subjektu unibertsalaren —gizonaren— eraikuntza egin zen. Publikotasuna gizonzkoekin lotu zen eta esfera pribatu eta domestikoa emakumezkoekin. Hau da, generoaren arabera rol ezberdinen banaketa egitean, emakumezkoek euskarri-lana burutu eta gizonzkoek profesioa ikasi eta egun bizigarri ditugun espazioak eraiki zituzten, unibertsaltasun arrazionala ahotan zutela. Perspektiba partikularrak, gizonzkoenak, neutral bezala proiektatuak izan dira. Moralitasun kanoniko eta hegemonikoak, tradizioz, emakumeak atxikitako portaerak ukatu eta unibertsaltasun neutral horretatik kanpo utzi ditu. Hots, gizonzkoen esperientzia gizakion esperientzia bezala ulertzen da.

Gaur egungo errealitatea publiko-pribatu binomioaren arabera eraikia izan denez gero, gizarte-egituretan zein espazio erabili eta ulertzeko dugun moduak dikotomia politikoa plazaratu du, eta arrazoiaren —gizonaren— eta emozioen —emakumearen— arteko banaketarekin alderatu daiteke. Egun ezagutzen dugun publikotasunak

neutraltasunera garamatza, unibertsaltasunerantz, eta, ondorioz, pribilegioen arabera hierarkizatutako gizarte-egiturarantz.

Arkitektura-espazioak espazio plural bezala ulertu eta antzeman nahi baditugu, unibertsaltasunaren eta neutraltasunaren zentzua alboratu behar dugu. Ezberdintasunak balio eta prozesu moduan ulertuz, horien arabera eraikitako, eta ez berdintasun unibertsaletik ateratako, espazio inklusiboak behar ditugu (Young, 2000).

Heziketa-espazioak

Espazioak eta bere ezaugarri fisiko, adierazpen eta sinbolikoek gizartean influentzia izan eta gizakion portaeran eragina duten moduan, heziketaespazioetan¹ eta bereziki eskoletan sortzen diren eraikitako ezberdintasun espazialen inguruko gogoeta egingo da.

Ezagutzen dugun heziketa-sistemak ezagupenaren transmisio hierarkikoan du oinarri, irakaslearengandik ikasleak jasotzen du ezaguera, tradizioz ezarritakoaren igorpena gertatzen da, egiteko era edo formak errepikatuz eta gizarte- eta kultura-mailan erreproduzioak sorraraziz (Zafra, 2015). Hau da, eskola-espazioek ez dituzte soilik ezberdintasun sozial eta egituratuak nabarmentzen, baizik eta horiek kopiatu eta ezilkortu egiten dituzte.

Aurreko atalean aipatutako espazioen neutraltasun eza ahora ekarriz, eta errepikapenekin konektatuz, eskoletako espazioak XXI. mendeko feminitate eta maskulinitatearen

¹ Heziketa-espazioez berba egitean, distribuzioaz eta kudeaketaren inguruko gai garrantzitsuaz gabilta.

epitome bihurtu dira (Acaso, 2015). Oinordekotza kultural moduan jasotzen ditugun genero-rol zehaztuei pairatzen dugun kapitalismo garatuaren oinarriak gehitzen badizkiegu, sistema patriarkatuaren bermearen eragina nabaria dela esango genuke. Beraz, heziketa mistoak sexuaren araberako desberdintasunak zuzentzeko bidea zabaldu duen arren, eredu maskulino hegemonikoak indarrean jarraitzen du eduki esplizitu eta ezkutuen bitartez. Ondorioz, hezkuntza-zentroek, neutraltasuna bultzatuz, instituzio sozial eta hezitzaile moduan gizonezko eta emakumezkoen jokabide eta roletan paper garrantzitsua betetzen dute (Moreno, 1993). Are gehiago, generoak «garena» identifikatzen du, eta Maria Acasok «dagoena» bezala karakterizatuko du.

Esate baterako, txikien errealitatearen inguruko gogoeta eginez, eurek erabilitako sozializatorako espazioak genero-irizpidearen arabera banatuta daude: koloreak, janzkerak, ekintzak, jolasak, komunak... (Preciado, 2006). Hezkuntza-esperientzia, beraz, dikotomia zurrun baten baitan abiaratzen dugula ondoriozta dezakegu (Platero, 2013).

Horrenbestez, eskoletako epistemologia normatiboaren funtzionamendua zalantzan jarri beharra dago (Preciado, 2016) eta, ondorioz, heziketa-espazioen inguruko gogoeta egitea beharrezkotzat jotzen da. Bakarra, zurruna eta uniforme zen soluzioa alde batera utzi eta erantzun ezberdin eta originalen garaia heldu da, esperimentalak eta irekiak izan behar duten heziketa-espazioen beharra dago. Ikasleen heterogeneotasuna errespetatuko duen pedagogia erradikalaren eta ondoriozko espazioen aldarrikapena egin behar da, norma binario eta unibertsalak eredu akademikoaren zentroetik aldentuz.



Irudia ~ Vittra Telefonplan eskola, Stockholm, Suedia.
Egilea ~ Rosan Bosch arkitektoa.

Heziketa-prozesua pentsamenduaren askatasunerantz garamatzen ibilgailu bezala antzemanaz, gizarte-egitura zurrunen eraldatzailea izateko bokazioa aldarrikatu beharko da. Heziketa-espazioek ez dute jasotako herentzia kultural eta sozialaren isla izan behar, baizik eta kultura-produkzioaren estimulu izan behar dute, era berean horren eraldatzaile potentzial bihurtu daitezkeelarik. Horrela, ezagutzen ditugun espazio heteronormatiboei aurre egin ahal izateko, espazio ezberdinen banaketa zein kudeaketa genero-irizpideen arabera antolatu eta moldatu beharko lirateke, berdintasunaren irizpideen arabera, alegia.

Ondorioak

Generoaren araberako espazioaren kudeaketa eta distribuzioak uste baino garrantzi handiagoa izan du, eta espazioaren eta boterearen arteko asimilazioa arazo gisa planteatzera hel daiteke. Gizonezkoen eta emakumezkoen espazioa bizitzeko moduak sistema produktiboaren ikuspuntuan du erroa, esfera publikoaren eta pribatuaren arteko ezberdintasunean eta ondoriozko rolen banaketan.

Egoera horri aurre egin ahal izateko, hau da, arkitekturak ezberdintasun eta diskriminazio-egoera hauek gainditzen laguntzeko, eskola-espazioen ikerketa eta analititik abiatuz, adierazpen sexistak detektatu behar ditu. Ikaskuntza-zentroaren testuinguru geografiko-sozialetik hasita, eraikinaren egoera, gelen kokapen eta erabilera, jolastokiak, zona berdeak, gimnasioa... aztertu beharko dira erabiltzaileen jokabideen inguruan hausnartzeko.

///

Bibliografia

Acaso, M (2015): «Castigados sin fiesta o el papel de la educación del siglo XXI en el terreno de la no-discriminación sexual», <<http://www.mariaacaso.es/>> (Kontsulta: 2016-04-26).

Arendt, H. (2007): *La condición humana*, Paidós Ibérica, Bartzelona.

Montaner, J.M. eta Muxí, Z. (2014): *Arquitectura y política; Ensayos para mundos alternativos*, Gustavo Gili, Bartzelona.

Moreno, M (1993): *Cómo se enseña a ser niña: El sexismo en la escuela*, Icarla Editorial, Bartzelona.

Platero, L.R. (2013): «Marañas con distintos acentos: Género y Sexualidad en la Perspectiva Interseccional», *Encrucijadas. Revista Crítica de Ciencias Sociales*, 5, 44-52.

Preciado, P.B (2006): «Basura y género. Mear/Cagar. Masculino/ Femenino», <www.hartza.com/basura.htm> (Kontsulta: 2016-03-01).

Preciado, P.B. (2016): «El colegio y el ambito domestico estan idealizados pero son de los espacios mas violentos», *Entrevista El diari de l'Educació*, <http://www.eldiario.es/catalunya/educacion/espacio-domestico-idealizados-espacios-violentos_0_479802838.html> (Kontsulta: 2016-04-26).

Young, I.M. (2000): «Las cinco caras de la opresión», in I. Morant (ed.), *La justicia y la política de la diferencia*, Ediciones Cátedra, Madril.